

## HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza

Egoeraren hutsuneak ezaguturik, eta EKBk sorreratik beretik xede nagusizat hartu zuen koordinazio-lana gogoan harturik, egoki dator Elkarteko Lehendakaria den Paulo Agirrebaltzategik berak halako bilduma egitea.

Azken urteotako gorabeherak laburki gogoratuz, gizarte-mugimenduaren beharra azpimarratzen du berriro; bidenabar desbideraketa burokratikoaren arriskua gogoratuz. «Erantzun bateratua»-ren beharra agertzen da gailen mementu honetan. Eta EKBk, hain zuzen, baterakuntza hori lortzekotan sortu zen.

Arruti batetik, eta Maddalen Ezkerra-Iñaki Fernandez bestetik, jarrera kontrajarritan agertzen zaizkigu; eta honek, agian (eta «agian» hau ipartarren balio semantikoaz hartu behar da oraingoan) eztabaida sortuko du irakurleen artean.

Arrutik, garbiki, «txepetx-zaleen» bozeramale gisa agertzen zaigu ale honetan: «alderdikerien kalteak» salatzen ditu; alderdien aurrean belaunikaturik ibiltzea, «lo euskaldún aún no ha alcanzado una formulación política independiente» esaldia egiten du bere. Helburu horretan funtsezkotzat jartzen ditu bai Txepetxen Teoria, bai 15 udal-aldizkari berriek adierazten duten arrakasta.

Ezkerra-Fernandez bikoteak, aldiz, **Euskal Herrian Euskaraz** organizazioaren izenean, oro har, esaldi honen inguruan garatzen du bere ikusmoldea: «ez dago euskararen normalkuntza, euskal gizarteak bizi dituen arazoetatik at aztertu eta bideratzerik». Honetan gogaide ikusi ditugu orrialde hauetan, besteak beste, bai Iztueta eta bai Odriozola. Euskararen arazoa bi hauen ustez «arazo politikoa da» osoki. Eta helburuak eta estrategiak, «nazio-ikuspegitik» zedarritu behar dira.

Bi hauen iritziz, horretara, urte hauetako gertakari nagusiak UEMA udal euskaldunen Elkargoa, batetik, eta **Egunkaria**, bestetik, izan dira.

Ez dagokio **BAT** aldizkariari eztabaida funtsezko horretan honen ala haren alde kokatzea. Guri, hemen, arrazoinak eskaintzea dagokigu; eta ezpaia aberasten laguntzea. Bi artikulua dira mamitsuak. Bestetan azaldu ohi ez diren kezka eta susmoak agertzen dira lotsarik gabe. Eta hau guztia oso mesedegarria izan daiteke alor honetan.

Erramun Baxok gure lankidea Quebec-en dago aste hauetan. Hain zuzen, begirale joan da Auto-Determinazio prozesua zaintzen laguntzeko; eta berri mamitsuak eta zehatzak ekarriko dizkigu bere bigarren aberri hartatik («Enbata» astekarian hasia da jadanik bere iritziak ezagutarazten).

**BAT** aldizkariak egin dion elkarrizketa luzeak, horretara, (gure Lehendakariak lortutako erantzun mordoaren arabera) balio eta interes berezia du. Lurraldetasunari eta ofizialtasunari buruz egiten dituen oharrrak, adibidez, argigarri gerta daitezke zenbait eztabaida alferretan. Itxurakerien eta espantuen arriskutik at kokatzeko eskatzen digu baxenabartarrak: «ikurrak ematen dizkigute herriaren izaitea ukatzeko»; azken funtsean, jukutria horien atzean, «ikurra eder, baina errealitate ahul» topatzeko.

Somatzen diren samindura batzuk oso kontuan hartu beharko genituzke Hegoaldeko, gure «hego-zentrismoa» alegia; baita euskaldunoi oraindik falta zaigun euskal harrotasuna. Quebectarrek «j'ai le goût du Quebec» esan ohi omen dute. Eta Ipar-Ameriketara (baina ez hemen) erruz zabaldu dira «I am proud to be Basque» izkirikoa daramaten nikiak. Baxokek «alaitasunaren funtzioa» eskatzen du euskararentzat.

Iparraldeko beste lotsagarrikeria bat salatzen du: 7.000 ikasle orotara. Hauetako 2.000 Baiona inguruan ikasten ari; gainerako 5.000k,

kanpoan... Zer espero daiteke horrelako deserriraketa sistematiko batetik? Nekez sor daiteke, eta antola, euskal «intelligentzia»-rik, horrelako deskalabroaren barrutik.

Ale honetan **Tantak** aldizkarian (12.zb.) jarri du bere arreta J.M. Odrizola lankideak. Isasi irakaslearen inguruko ikertzaileek aspaldisko honetan azpimarratzen dute (oraingoz oihartzunik gabe) haurren euskararen korpusaren ahulezia. Are Urola ibarrean ere, erdal moldeak eta interferentziak dira gailen. Animalien izendapenari buruz erakasten zaiguna (izendapenen kopurua euskaraz, erdarazko kopuruaren erdira ere ez omen dela iristen!) oso adierazgarria da. Eskoletan entzuten dena, «euskañol» deritzona da gero eta maizago. Ikuspegi beltza, zinez; baina kontuan hartzekoa, eta erremedioa jartzen hasteko behar-beharrezkoa.

Solék Kataluniari buruz dakartzagun berri ugari eta zehatzek, berriz, larru-gorrian uzten dute gure txepelkeria. Han bai; han hizkuntza normaltzeko nahia ageri da denean: bai instituzioetan, bai herrian ere. Kataluniak katalaneraz bizi nahi du. Guk? Irakurleak berak erantzun beza.

Iparraldeaz, Bilboko euskaldun jendeaz, **Euskal Konfederazioaz**, Ikerlanez, **Mercator** planaz, kultur-estrategiaz, eta bestez, ematen diren berriak ere, interesgarri gerta dakizkioke askori.

Hau esanda, irakurketara igortzea onena.